

Lan-deialdia: Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko Berdintasun Teknikaria

ESKAINTZEN DA:

- Lanpostua **BILBON**, baina lan eremua Euskadi osoa izango da.
- **Jardunaldi osoko lanaldia.**
- Urtean **26.250.90€**-ko soldata gordina.
- EGKren **akordio kolektiboak araututako lanpostu bat eta EGK-ko Batzorde Iraunkorraren ardurapean.**
- **Lantalde gazte eta dinamiko** batean parte-hartzea.
- Gizarte eta politika publikoetan **Euskadiko gazteriaren eskubideen alde lan egitea**, bereziki **emakumeen eta gizonen Berdintasun arloan eta LGBTBI+ kolektiboaren egoeraren hobekuntzarenean.**

LANPOSTUAREN EZAUGARRIAK:

- Berdintasun eta LGBTBI+ kolektiboari dagozkion **politika publikoak** ezagutu, hausnartu eta lantzea (Berdintasun Plana, Gazte Planak, eta abar).
- Elkarre, eragile, talde eta gazte parte-hartzaileekin harreman zuzena mantentzea eta **Berdintasun, Aniztasun eta LGBTBI+ kolektiboarekin**
- **lotutako proiektu eta prozesuak garatzea.**
- **Erakunde Publikoekin bitartekaritza** eta **elkarlana** burutzea (Eusko Jaurlaritza, aldundiak, udalak, mankomunitateak eta beste edozein), **gazteria eta Berdintasun sailekin.**
- Lan-arloari dagozkion **proiektuak eta ekimenak diseinatu, aurrera eraman, ebaluatu eta koordinatzea** (EGK-ko I. Berdintasun Plana, Berdintasun Protokoloak...)
- **Elkartek eta gazteek arlo honen gainean** garatzen dituzten **proiektuak/ekimenak** ezagutzea eta haietan parte-hartzea, **bereziki emakumeen eta gizonen berdintasun alorrean.**
- EGKren lan-arlo guztiekin **ekintzak koordinatzea.**
- Dagokionean **komunikabide** ezberdinetan adierazpenak eta analisiak egitea.

ESKATZEN DA:

- **30 urte baino gutxiago** izatea.
- **Goi ikasketak** izatea. Edozein esparrutako ikasketak izanda ere (teknikoak zein gizarte gaietakoak), Berdintasun-arloko espezializazioa eskatzen da (gutxienez 150 orduetakoak eta ziurtagiridunak badira).
- Euskadiko **gazteriaren Berdintasun arloko egoera eta baldintzen**, hala nola, gizartearen **errealitatearen ezagutza izatea.** Berdintasun arloko lege, programa, neurri eta proiektuak ezagutu.
- Euskal elkartegintzaren, gizarte mugimenduen eta **parte-hartze modu ezberdinen ezagutza izatea**, bereziki **feminismoa eta berdintasunari** dagokienez.
- **Euskaraz eta gaztelaniaz hitz egiteko eta idazteko maila altua** (EGA, HABE 3...).
- Gazte lantaldeak eta eztabaida-taldeak **dinamizatu eta koordinatzeko gaitasuna eta esperientzia.** Dinamika hauetatik ondorioak atera eta dokumentuetan islatzeko gaitasuna.
- **Legeak, dokumentu ofizialak eta txostenak** landu, ondorioak atera, ikertu eta ekarpenak egiteko gaitasuna.

- **Administrazioarekin harreman** formalak bideratu eta interpelaziorako gaitasuna.
- **Malgutasuna:** ordutegi eta mugikortasun geografikoa.
- **Ikasteko gaitasuna.**

BALORATUKO DA:

- **Lantaldean aritzeko** trebetasuna: malgua izatea, proaktibitatea eta **ardurak hartzeko** prestutasuna.
- Ekimen propioak **autonomiaz** garatzeko gaitasuna (beharrak hauteman, proiektuak diseinatu, ekarpenak barneratu, faseak diseinatu, helburuak lortu).
- **Antolaketarako** gaitasuna.
- **Harremanetarako** gaitasuna.
- Pertsona **sortzailea** izatea.
- Aldi berean hainbat eginbehar gauzatzeko gaitasuna.
- **Ingelesa** edo beste hizkuntza batzuen ezagutza.
- **Informatika-ofimatika** erabiltzen jakitea.
- Ahalik eta gazteen izatea.

HAUTAGAITZA AURKEZTEKO:

- **Epea:** abenduaren 3a arte.
- **Curriculum eta motibazio gutuna** bidali egk@egk.org helbidera. Posta elektronikoa gaia zehaztu: BERDINTASUNA

Curriculum dokumentua honela izendatu:
IzenAbizenak.CV_BERDINTASUNA.pdf/doc.

Motibazio gutuna honela izendatu:
IzenAbizenak.KARTA_BERDINTASUNA.pdf/doc.

AUKERAKETA PROZESUA:

Curriculumen bidalketa, abenduaren 3a arte.
Idatzizko froga nork egin behar duenaren jakinarazpena, abenduaren 11ean.
Idatzizko froga Bilbon, abenduaren 13an.
Elkarrizketa nork egin behar duenaren jakinarazpena, abenduaren 18an.
Elkarrizketa Bilbon, abenduaren 19an.
Lanean aritzeko hautatuaren jakinarazpena, abenduaren 20an.

Lanean hasteko data, 2018ko urtarrila.